

# OSASUN-LARRIALDIARI LOTUTAKO IKASLEEN ZEHAR- KONPETENTZIEN GARAPENA

Lehen  
Hezkuntza

*Egoeraren ezagutzatik, hezkuntza esku-  
hartzeko bidea egiten.*

---





## Sarrera

COVID-19 pandemia dela eta martxoaren 14ean deklaraturako osasun-larrialdiko egoerak eraginda ezarritako neurrien ondorioz, gure gizartea zurrumbilo emozional batean murgilduta dago. Horrelakoetan, urduritasuna, frustrazioa edo gogogabetasunak areagotu egiten dira eta argitara ateratzen dira kudeatzen jakin behar diren sentimenduak eta emozioak gainezka ezin ez dezaten. Bizi genuen egoera eta konfinamendu-deseskalatze uneetan bizitzen ari garena erabat ezberdinak dira eta, horrek egokitzapenaren beharra dakar berekin.

Izan ere, Hezkuntza-komunitate osoaren ardura eta kezka da, ezarritako neurriek izan dezaketen eragina ikasleen ikaskuntza prozesuan zein bilakaera pertsonalean, eta zer nolako eszenatokiak izango ditugun ikastetxeak berriro irekitzen direnean.

Horren aurrean badugu era bat erantzun egokia eskaini ahal izateko. Kezka hezkuntza erronka bihurtuz, egoerak ondorioztatutako eragin kaltegarria murrizteaz gain, ikasteko eta garapen pertsonalerako aukera ere ireki daiteke.

Horretarako, batetik, emozioen kudeaketan laguntzeko, seinale fisikoak eta pentsamenduak ezagutu eta identifikatu behar dira; nola sentitzen garen zergatiak ikertu eta aurkitu behar da; esperientzia emozional hori hitz egoki eta jakin batekin izendatu behar da, sentitzen denaz jabetzeko eta adierazpen egokia lantzeko.

Bestetik, bizi izandako esperientzien aurrean ikasleek nola jokatu eta jardun duten inguruan gogoetarako aukera eskaintzeak, lagunduko du, bai ala bai, izandako ikasketen autoerregulazioan eta bizitza osorako ikasketan.



Beraz, kezka erronka bihurtzeko asmoak bultzatuta, eta adierazitako ekintzak gauzatu ahal izateko, eskaintzen da esku artean duzuen hezkuntza proposamen antolatua.

## Proposamenaren testuingurua eta egitura orokorra

Proposamen hau aurkezterakoan, kontuan hartzen da irakasleak osasun-larrialdiko egoera hasi zenetik ari direla lanean ikasleekin eta familiekin, eta kasu askotan ikasleen egoera sozio emozionala ezagutzen dutela. Jakin badakigu, ahalegin handia egin dela familia guztiekin harreman hurbila izateko, eta hori ez dela erraza izan kasu batzuetan; beraz, irakasleen aldetik erakutsitako konpromisoa handia izan da eta hori balioan jarri nahi dugu.

**Hala ere, ikasturtearen amaiera hurbiltzen ari denez, beharrezkoa da diagnostiko bat egitea, batetik, une honetan ikasleek dituzten beharrezkoen ezagutzatik abiatuta, dagozkien orientabideak eta laguntza eskaintzeko, eta bestetik, 2020-2021 ikasturtearen hasierako esku-hartzea ahalik eta egokiena izateko.**

Horregatik eremuka antolatuta proposatzen dira zenbait jarduera, inola ere hitzez hitz hartu behar ez direnak, eta, jakina, ikastetxe, gela, ikasle eta familia jakin bakoitzaren testuinguruan interpretatu beharko direnak.

## Xedea

Osasun-larrialdiko egoeraren ezarpenaren ondorioz ikasleak beren etxeetan bizitzen ari diren egoera kontuan hartuta, eta informazioa bilduz, ikasle guztien ongizate sozio-emozionalaren eta motibazioaren mailari buruzko **diagnostikoa egitea**, eta **hautemandako beharren arabera orientazioa eta laguntza** ematea.

## Ardura

Ikastetxeko aholkulariak koordinatutako egite horretan, tutorearen protagonismoa eta lidergoa funtsezkoa bada ere, kontuan izan irakaskuntza-funtzioaren tutoretza-izaerari ekiteko, une oro bere tratamenduaren zeharkakotasuna ziurtatu behar dela.

## Hezkuntza proposamenaren garapena.

### Hezkuntza proposamenari ekin aurretik.

- Komenigarria da oso, irakasleak hezkuntza emozionalaren oinarrian dauden osagaiak kontuan izatea, horrela sozio-emozionalki adimentsua izango den jarrera batez jokatu ahal izateko. Horrela bada, afektuzko enpatia eta enpatia kognitiboa, gorputz hizkuntza, entzute aktiboa, samurtasuna eta laguntzarako prestutasuna adieraztea, besteak beste, lagungarri izango dira konfiantzan oinarritutako une bat eraikitzeke.
- Horrez gain, komenigarria da, ikasleek bizi ahal dituzten testuinguru ezberdinak eta izan daitezkeen eszenatoki anitzen aurrean, nolabaiteko aurreikuspen bat egitea.

### Une ezberdinak garatzeko jarduerak.

## 1. Agurra edo elkarrizketaren hasiera.

**Helburua: *Enpatia afektiboaren garapenaren bidez, konfiantza-esparru bat eraikitzea, konplizitatean oinarritutako komunikazioaren bitartez jasotako informazioa ahalik eta esanguratsuena izateko, bai familiaren bidez egiten denean, bai ikaslearekin berarekin egiten denean.***

Elkarrizketak egiteko modua alda daiteke familiaren arabera, eta, alde horretatik, eragina izan dezaketen eta kontuan hartu beharko ditugun aldagai asko daude: LH-DBH, ikasturte mailak, prestutasuna, lanean ari diren ala ez, gertuko heriotza izan duten, nola bizi izan dituzten konfinamendu-hilabeteak eta deseskalatze-prozesua, beren bizipenak kontatu nahi dizkiguten ala ez, eta beste hainbeste egoera ezberdin.

Horregatik, hasieratik, deiaren edo harremanetan jartzeko arrazoien helburua zehaztu beharko da; berriz ere, funtsezkoa da familiak jakitea burutuko den lanaren azken xedea. Horrek, ziurrenik, prozesu komunikatiboa eraginkorrago izaten lagunduko du.

## 2. Informazioa jasotzea ardura agertuz.

**Helburua:** *Ikasleen motibazio, ongizate sozio-emozional eta fisikoaren ezagutzan erakutsitako interesaren bidez, bizi duten egoeran garatutako zehar-kompetentzietan buruzko ahalik eta informaziorik osatuena biltzea eta ikasleei gogoetarako une bat eskaintzea.*

Osasun larrialdiak inposatutako konfinamenduak ikaste-irakaste arautuaren **eszenatokia aldatu du**. Etxea ikasgela bihurtu da, aurrez- aurreko harremanak birtualak izatera pasa dira, espazioa eta denbora inoiz baino gehiago partekatu behar izan dira senideekin, ohiturak aldatu behar izan dira, frustrazio uneak areagotu egin dira...

Zailtasunak inola ere gutxietsi gabe, esan ahal da, eszenatoki horrek aukera eman diela ikasleei oinarritzko **zehar- kompetentziak** beste modu batean garatzeko.

Beharbada, dagoeneko, irakasleek ikasleen egoerari buruzko **informazio asko** izango dute jasota. Halere, informazio hori ikasturtearen amaieran **osatzea** eta antolatzea, funtsezkoa izango da, datorren ikasturteari begira egokitutako esku-hartzea antolatzeko.

Informazio hori jasotzeko, formatu eta adibide ezberdinak eskaintzen dira, eta ikastetxe bakoitzak ikasturte mailaren arabera, elkarrizketa norekin burutzen den arabera eta testuinguruari erreparatuz egokiena aukeratu ahal izango du. Horrez gain, tresna horiek baliagarriak izango dira familia giroan ikasleek alarma-egoera garai honetan ikasi dutenari buruzko gogoeta eta autoebaluazioa egiteko.



1. Telefono deia eta **elkarrizketa familiako pertsona heldu** batekin (aita, ama edo arduradun bat).  
Deiaren helburua azaldu ondoren (1. atala), galdera batzuk egin ahal dizkiogu elkarrizketa baten barruan. Gidoi eran antolatutako galdera batzuk eskaintzen dira, baina ez hitzez hitz egiteko, tutoreak kontuan har ditzan baizik. *1. Eranskina*
2. Telefono dei baten edo ohiko kontaktu baten ondoren, familia harkor agertzen da eta **galdetegi zehatzago** bat betetzeko prest dago. *2. Eranskina*
3. Informazioaren **jasoketa zehar-kompetentzien** arabera antolatuta dago. Informazio jasoketan islatuko diren adierazleak ikasleak bizitzen ari diren egoerarekin lotuta daude, eta ebaluatu ahal izateko aukera antolatua eskaintzen du. *3. Eranskina*

### 3. Jasotako informazioaren balorazioa eta beharrianen detekzioa.

**Helburua:** *Jasotako informazioaren balorazioa egitea, ikasleen ezagutzan sakontzeko eta motibazio zein alderdi sozio emozionalak eta fisikoak antzemateko, horrela, irakasleek bai une honetan, bai 2020-21 ikasturtearen hasieran egin beharreko esku-hartzeari ekiteko eta egoera bakoitzera egokitutako orientabideak emateko.*

Sarreran aipatu bezala, osasun-larrialdiko egoerak ondorioztatutako neurrietatik, ikasteko eta garapenerako aukerak ere ireki dira. Horren isla, zehar-kompetentziak garatzeko aukera, eta batzuetan izkutatuta geratzen diren zenbait alderdi azaltzeko bidea ireki du konfinamenduak.

Beraz, [Oinarrizko konpetentzien eskuratze-mailari buruzko txostena egiteko orientazioak](#), [Lehen Hezkuntza](#) dokumentuan zehar konpetentziak ebaluatzeko zenbait adierazle agertzen badira ere, uste dugu alarma-egoerarekin lotutako **beste adierazle batzuk** kontuan hartu behar ditugula zehar konpetentziak ebaluatzerakoan.

#### **Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.**

- Gailu digitalak erabiltzeko trebea izan da
- Pantaila aurrean pasa duen denbora orekatua izan da
- Bizi izan dugun egoerari buruzko iritzia eta pentsamenduak adierazteko gai izan da.
- Egoera sanitarioaren aurrean ideiak, emozioak eta sentimenduak modu ezberdinez adierazteko

#### **Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.**

- Ikasteko baldintza onak izateko edo bilatzeko gai zain da (tokia lasaia, konexioa, gailua, ...)
- Lanak entregatzeko epeak errespetatzeko gai izan da
- Informazioa ulertzen saiatu du (azaltzen zaiona, irakurtzen duena, ...)
- Zalantzak argitzeko gai zian da ( bideak garbi zituen)
- Ikaskuntzarekin aurrera egiteko gai zain da (arrera positiboa izan du)

#### **Elkarbizitzarako konpetentzia**

- Arauak errespetatzeko gai da.
- Lagunekin harremanak izateko gai izan da.
- Etxean besteen espazioak eta beharrak errespetatzeko gaitasuna izan du.
- Etxeko lanetan kolaboratzeko prest agertu da
- Gatazka egoeretan estrategiak erakusten ditu

#### **Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia**

- Lan bat garatzerakoan, zailtasunak identifikatzeko gai da.
- Jarduera berriak egiteko gai izan da (sukaldata, dantza, artelanak, ...)
- Bere proiektuen emaitzak baloratzeko gai da.
- Errutina berriak egiteko eta ikasteko gai izan da

### **Norbera izaten ikasteko konpetentzia**

- Bere buruan konfiantza sentitzeko gai da.
- Zaletasun berriak aurkitzeko gaitasuna izan du
- Malgutasunez egokitu da egoera berrietara
- Jarrera irekia agertzen du testu inguru berri honetan.
- Ikuspuntuak eta sentimenduak erraz partekatzen zituen

Balorazio lan horretan laguntzeko eranskinetan tresna hau aurkituko duzue:

**Zehar-konpetentzien adierazleak konfinamendu garaian. 4. eranskina**

## **4. Orientabideak**

**Helburua:** *Ikasleen ongizate sozioemozional eta motibazio alderdietan laguntzen duten argibide orokorrak ematea, bai eta orientabideak eta laguntza espezifikoak ere bildutako informazioa baloratu ondoren beharrak agertu dituzten ikasleei.*

- **Ikasleen beharrak jasotzea**

Aurreko puntuan jasotako eta aztertutako informazio guztia konfinamenduan zehar garatu diren **zehar konpetentziei** buruzkoa da. Informazio hori oso baliagarria izango da ikasturte amaieran **ikasleen oinarritzko 12 konpetentziak** (zeharkakoak eta diziplinarrak) baloratzeko orduan.

Balorazio horretan ikasleren batek **beharrak agertuko balitu** txosten batean jasotzea aholkatzen da. Txosten horretan ikasturte honetan hautemandako beharrak jasoko dira, baita datorren ikasturterako orientabideak eman ere.


- **Tutoreak** (edo ikaslearen jarraipenaz arduratu den irakasleak) **alderdi orokorrak** eta **zehar konpetentzien inguruko informazioaz** arduratuko da.
- Irakasgaietako **irakasleak, hasierako mailan (1) edo aurreratuan (3)** dauden diziplina baitako konpetentziekin lotutako irakasgaiak zehaztuko ditu. Atal honetan **udako lanak** ere zehaztu ahal dira.

Ikasturte amaierako ikaslearen txosten hori datorren ikasturteko hezkuntza indartzeko plan pertsonalizatuaren abiapuntua izango da.

Eranskinetan ikasleen beharrak jasotzeko **eredu bat** eskaintzen da:

**Ikasturte amaierako txostenaren eredia. Hezkuntza indartzeko proposamena.**

*5. Eranskina.*



- **Irakasleentzako eta familientzako gomendioak**

Konfinamenduan zehar haurren burmuinean gertatu dena eta haien ongizatean izan duen eragina ulertu ahal izateko, denbora horretan argitaratu diren testu eta artikulua asko irakur daitezke. Horren inguruan, interesgarriak izan daitezkeen bideo hauek dituzue eskuragarri.

VICENS ARNAIZ. ¿Qué ocurre en el cerebro de niños y niñas durante el confinamiento?

Nahiz eta, Haur Hezkuntzako profesionalei eskainitako bideoa den, bertan ematen diren azalpen eta zenbait orientabide aplikagarriak dira beste adin batzuetan ere.

ALVARO BEÑARAN. Haurrak eta konfinamendua.

Garrantzitsua da gertatu diren egoerak ondo ulertzea, eta esku-hartzeak ondo planifikatu ahal izateko, ezer jakintzat ez ematea.

Familiekiko harremanetan eta elkarrizketetan, kezkarriak edo ez hain kezkarriak izan daitezkeen hainbat egoera-mota hauteman ahal izan dira, eta egoera horiek guztiek zerikusia izango dute ikasleen egoera sozio-emozionalarekin. Ildo horretan, familia horiei orientabideak emateko hona hemen bideo sorta bat.

ROBERTO AGUADO: Cómo afrontar la cuarentena BBK Family.

Bideo horretan familiei zuzendutako aholkuak ematen dira, ikasleen ongizate sozio-emozionalarekin zerikusia dutenak.

ROBERTO AGUADO: Adimen emozionalari buruzko bideo motzak (BBK Family).

[Inteligencia emocional I](#)

[Inteligencia emocional II](#)

[Inteligencia emocional III](#)

[Inteligencia emocional IV](#)

Adituen azalpenetatik ondoriozta daiteke gehien antzeman ahal izan diren egoerak honako alderdi hauekin lotutakoak izan direla:

- Gatazkak pertsonen arteko harremanetan.
- Haserreak eta tristura, bizitako egoeren eta ziurgabetasunaren aurrean.
- Erresilientzia.
- Zailtasunak errutina berrien aurrean.



- Motibazioari eusteko zailtasunak.
- Autoestimua garatzeko zailtasunak.
- ...

Alderdi hauen lanketarako jarduera katalogo bat proposatzen da, ahal den heinean eta egoki ikusiz gero, irakasleek aukeratu dezan ikasleari edo familiari eskaintzeko hautemandako egoeraren arabera. 6. *Eranskina*

## 5. 2019-20 ikasturtearen amaiera.

**Helburua: 2019-20 ikasturtearen amaierari ekitea mezu positiboen erabilera eta ikaskuntza-prozesuan eragiten duten motibazio-alderdiak garatuz, eta agur esateko aukera ematea, batez ere LH 6. mailako eta DBH 4. mailako ikasleen artean.**

Ikasturte honetako azken hiruhilekoari aurre egitea erronka handia izaten ari da hezkuntzako profesionalentzat. Edozein herritarrek bezala, osasun-larrialdiak ezarritako baldintzen pean bizitzeaz gain, irakaskuntza-prozesuari ekiten jarraitu behar izan dute, erabateko ziurgabetasuneko eta hezkuntza-salbuespeneko egoeran.


Ikasleentzat ere ez da samurra izaten ari. Batzuk nahiko erraz moldatzen ari dira egoera berrira; zoritxarrez, beste batzuk, ez. Egokitzapen horretan denek ez dituzte aukera eta baliabide berberak izan. Jokoan dauden aldagaiak ugariak eta anitzak dira, eta denek, onerako edo kalterako, eragin izan dute ikasleen motibazioa eta ongizate sozio-emozionalean.

Baina, ikasturtea amaitzear da eta egindako esfortzu guztiak ondo merezitako itxiera egokia behar du. Itxiera horretan, hurrengo ekintza eremuak azpimarratu nahi ditugu.

### Koordinazio eremua

Aurreko puntuetan proposatutakoak, 2020-21 ikasturtean hezkuntza esku-hartze egokia burutzen lagunduko duela sinetsita, funtsezkoa izango da, batez ere LHko 6. eta DBHko 4.mailatako ikasleen kasuan, **koordinazio lanetan ohikoa den esfortzuari plus bat eranstea.**

Izan ere, alarma-egoeratik ondorioztatutako berariazko alderdiak ikasturte maila aldaketa guztietan kontuan izatea garrantzitsua bada ere, arreta berezia jarri beharko da etapa eta ikastetxe aldaketarekin batera bizi izaten diren une sentsibleetan.



## Agur esateko aukera

Ustekabeen, egun batetik bestera, gure eskola utzi behar izan genuen, eta agur esateko aukerarik ere ez genuen izan. Errealitateak, jakina, desberdinak eta askotarikoak izango dira, baina, neurri batean, **denok sentitzen dugu agur hori egiteko beharra**. Eta are gehiago, etapa amaitu eta gure ikastetxeari lotutako esperientziak, ikaskideak, irakasleak... atzean uzten dituzten ikasleak.

Beraz, ikasturtearen **itxiera adierazteko ekimenak egitea** lagungarria izango da ikasle zein irakasleen sentimendu eta emozioen kudeaketa egokian.

Jakin badakigu agur esateko modurik onena aurrez aurre biltzea dela baina, une honetan ezin dugu aurreikusirik hori noiz izango den posible. Horregatik, komeni da bestelako bideak aztertzea, eta ikasturte maila guztietan garatzea oso garrantzitsua bada ere, arreta berezia izatea aholkatzen da etapa bukatzen dutenekin. LHko 6. mailako ikasleak izango dira agur esateko proposamenak egingo dituzten lehenak.

- bideo-deiak, ikasle bakoitzari agurtzeko tarte bat utziz
- bideo-grabaketak, gero bideo guztiekin nahasketa bat egiteko
- argazkiak edo marrazkiak, testu motzekin
- audioak
- idatzizko mezuak,...

Ekoizpen guztiekin erakusketa bat ere egin daiteke, PADLET bezalako tresnaren bitartez.

Eskuragarri dauden tresnak ugariak eta anitzak badira ere, garrantzitsuena ikasleekin batera ikasturtea amaitzeko formula adostea da.

## Aurrera egiteko bidean

Ugariak ez ezik, anitzak eta kontrajarriak dira une oro hedabideetatik heltzen zaizkigun berriak. Horietariko batzuk, zuzenki, ikasleengan kezka eta ziurgabetasuna sortzen ari dira. Bizitzeko eta harremantzeko ohiturak, udarako planak eta lanak, ikasketak burutzeko baldintzak,...asko eta asko dira galderak, eta erantzunak, ordea, gutxi.

Mezu positiboen lanketa, aldaketen aurrean malgutasuna izatea, laguntza-harremanak ezartzea, norberaren ikuspegi positiboa lantzea, auto aurkikuntza sustatzea, sormenari ekitea, umorea erabiltzea, egoeren kontrolean baino, emozioen kudeaketan zentratzea... dira beste askoren artean, **erresilientzia garatzeko** gomendatutako alderdiak; esateko errazak bezain gauzatzeko hain zailak direnak.

Dena den, gogoratu, hezkuntza profesionalak garen heinean, **ardura adieraztea, gertutasuna agertzea, eta irribarre batez jantzitako laguntzarako prestutasuna sentiaraztea** direla, elkarren arteko solidaritateari ekiteko bitarteko garrantzitsu bezain eraginkorrak.

Horretan laguntzeko eta lan-proposamena etorkizunera begira jartzeko Eñaut Elorrieta eta Bilboko Koral Elkarteak konfinamenduan sortutako kanta partekatzea ideia ona izan daiteke.

Bestetik, inspiratzeko edota sententzio onak partekatzeko aproposa izan daitekeen beste bideo bat duzue eskuragarri.

Leioa Kantika Korala Bring me little water Silvy

**ERANSKINAK**

### Informazioa jasotzeko galdeketa

Telefono deia eta **elkarrizketa familiako pertsona heldu** batekin (aita, ama edo arduradun bat).

Deiaren helburua azaldu ondoren, galdera batzuk egin ahal dizkiogu elkarrizketa baten barruan. Gidoi eran antolatutako galdera batzuk eskaintzen dira, baina ez hitzez hitz egiteko, tutoreak kontuan har ditzan baizik

- Aparteko egoerarekin kezkatuta agertu da (birusari buruzko galderak egiten zituena, eskolara noiz itzuli zen galdetzen zuen, etab.)
- Erraz adierazi du nola sentitzen zen denbora horretan (edo kostatu egin zaio)
- Ohiturak aldatu ditu (janaria, aisialdia, loa)
- Umore-aldaketak izan ditu (eztabaidak, nahigabea, tristea, normalean baino sarriago)
- Kosta egin zaio errutina berrira egokitzea (etxean egotea eta ezin irtetea)
- Gustura (edo ez) parte hartu du etxeko zereginetan (aipatzea zeinetan parte hartu duen)
- Errutina berriak hartu ditu konfinamenduan zehar
- Eskolako lanak modu ordenatuan egin ditu (edo ez)
- Egunero eman du denbora finko bat eskolako lanak egiteko eta motibazioa. Izan du lan horiek egiteko.
- Eskolako lanak egiteko laguntza eskaini dizute etxean (esan nork)
- Lagunekin harremanetan egon da
- Familiarekin harremanetan egon da
- Kosta egin zaio errutina berrira egokitzea (irteten hasi ahal izatea)
- Eskolara itzultzearekin kezkatuta dago.

Ziurrenik, familiarekin izandako elkarrizketan beste gai interesgarri batzuk ere azalduko dira, eta horiek ere jaso beharko dira, nahiz eta aurreko galderetan aipatuta ez agertu.

## 2. Eranskina

Telefono dei baten edo ohiko kontaktu baten ondoren, familia harkor agertzen da eta galdetegi edo formulario zehatzago bat betetzeko prest dago.

	INOIZ EZ	NOIZBAIT	ASKOTAN
Aparteko egoerarekin kezkatuta agertu da (birusari buruzko galderak egiten zituen, eskolara noiz itzuli zen galdetzen zuen, etab.)			
Erraz adierazi du nola sentitzen zen denbora horretan (edo kostatu egin zaio)			
Jateko gogoia galdu duela edo gehiegi maite duela erakutsi du.			
Kosta egiten zitzaion gauzez lo hartzea			
Denbora gehiegi pasatzen nuen bideo-jokoekin			
Umore-aldaketak izan ditu (eztabaidak, nahigabea, tristea, normalean baino sarriago)			
Kosta egin zaio errutina berrira egokitzea (etxean egotea eta ezin irtetea)			
Gustura (edo ez) parte hartu du etxeko zereginetan (aipatzea zeinetan parte hartu duen)			
Eskolako lanak modu ordenatuan egin ditu			
Egunero eman du denbora finko bat eskolako lanak egiteko			
Motibazioa izan du eskolako lanak egiteko.			
Eskolako lanak egiteko laguntza eskaini diote etxean			
Lagunekin harremanetan egon da			
Familiarekin harremanetan egon da			
Kosta egin zaio errutina berrira egokitzea (irteten hasi ahal izatea)			
Eskolara itzultzearekin kezkatuta dago.			

### 3. Eranskina

Familiarekin hitz egitean bost zehar-konpetentzien inguruan antolatutako galdetegi baten bitartez lor dezakegun informazioa baliagarria izango da konpetentzia hauek ebaluatu ahal izateko. Informazio jasoketan islatuko diren adierazleak bizitzen ari diren egoerarekin lotuta daude

#### **ZEHAR KONPETENTZIEN INGURUKO GALDETEGIA**

Bi modutan eskaintzen da galdetegi hau..

Lehenengoan, familiarekin edo ikaslearekin elkarrizketa moduan egiteko eta irakasleak kontuan izateko. Galderak ebaluazio adierazle moduan formulatuta daude, helburua baita baliagarriak izatea ikasturte bukaeran egin beharreko txostenerako.

- Gailu digitalak erabiltzeko trebea izan da?
- Pantaila aurrean pasa duen denbora orekatua izan da?
- Bizi izan dugun egoerari buruzko iritzia eta pentsamenduak adierazi ditu?
- Egoera sanitarioaren aurrean ideiak, emozioak eta sentimenduak modu ezberdinez adierazteko gai izan da?
- Ikasteko baldintza onak izan ditu? (tokia lasaia, konexioa, gailua, ...)
- Lanak entregatzeko epeak errespetatu ditu?
- Informazioa ulertzen du (azaltzen zaiona, irakurtzen duena, ...)
- Zalantzak argitzeko bideak garbi zituen?
- Jarrera positiboa izan du ikaskuntzaren aurrean
- Arauak errespetatu ditu?
- Lagunekin harremanak izateko gogoak izan ditu?
- Etxean, besteen espazioak eta beharrak errespetatzen al zituen?
- Etxeko lanetan arduratsua azaldu da?
- Gatazka egoeretan estrategiak ditu?
- Lan bat garatzerakoan, zailtasunak izan ditu?
- Jarduera berriak egin ditu (sukaldata, dantza, artelanak, ...)?
- Bere proiektuen emaitzak baloratzen zituen?
- Errutina berriak hartu ditu?
- Konfiantza sentitzen zuen bere buruan?
- Zailtasun berriak aurkitu ditu erraz?
- Malgutasunez egokitu da egoera berrietara?
- Jarrera irekia agertzen zuen?
- Ikuspuntuak eta sentimenduak partekatzen zituen?.

Bigarrenengo aukeran, ondorengo taulan agertzen dira adierazle berdinak, konpetentziaka antolatuta. Beharbada, ezinezkoa izango da familia guztiekin bete ahal izatea, baina saiatzea pena merezi du.

<b>ZEHAR KONPETENTZIAK</b>	<b>ADIERAZLEAK</b>	<b>INOIZ EZ</b>	<b>NOIZBAIT</b>	<b>ASKOTAN</b>
<b>HITZEZ, HITZIK GABE ETA MODU DIGITALEAN KOMUNIKATZEKO KONPETENTZIA</b>	Gailu digitalak erabiltzeko trebea izan da?			
	Pantaila aurrean pasa duen denbora orekatua izan da?			
	Bizi izan dugun egoerari buruzko iritzia eta pentsamenduak adierazi ditu?			
	Egoera sanitarioaren aurrean ideiak, emozioak eta sentimenduak modu ezberdinez adierazteko gai izan da?			
<b>IKASTEN ETA PENTSATZEN IKASTEKO KONPETENTZIA</b>	Ikasteko baldintza onak izan ditu? (tokia lasaia, konexioa, gailua, ...)			
	Lanak entregatzeko epeak errespetatu ditu?			
	Informazioa ulertzen du (azaltzen zaiona, irakurtzen duena, ...)			
	Zalantzak argitzeko bideak garbi zituen?			
	Jarrera positiboa izan du ikaskuntzaren aurrean			
<b>ELKARBIZITZARAK O KONPETENTZIA</b>	Arauk errespetatu ditu?			
	Lagunekin harremanak izateko gogoak izan ditu?			
	Etxean, besteen espazioak eta beharrak errespetatzen al zituen?			
	Etxeke lanetan arduratsua azaldu da?			
	Gatazka egoeretan estrategiak ditu?			
<b>EKIMENERAKO ETA</b>	Lan bat garatzerakoan,			

<b>ZEHAR KONPETENTZIAK</b>	<b>ADIERAZLEAK</b>	<b>INOIZ EZ</b>	<b>NOIZBAIT</b>	<b>ASKOTAN</b>
<b>EKITEKO ESPIRITURAKO KONPETENTZIA</b>	zailtasunak izan ditu?			
	Jarduera berriak egin ditu (sukaldata, dantza, artelanak, ...)?			
	Bere proiektuen emaitzak baloratzen zituen?			
	Errutina berriak hartu ditu?			
<b>NORBERA IZATEN IZATEKO KONPETENTZIA</b>	Konfiantza sentitzen zuen bere buruan?			
	Zaletasun berriak aurkitu ditu erraz?			
	Malgutasunez egokitu da egoera berrietara?			
	Jarrera irekia agertzen zuen?			
	Ikuspuntuak eta sentimenduak partekatzen zituen?.			



### Zehar-kompetentzien adierazleak konfinamendu garaian

Berritzegune Nagusiak argitaratutako "Oinarrizko Kompetentzien eskuratzeko-mailari buruzko txostena egiteko orientazioak. LH" dokumentua du oinarri proposamen honek. Erdi mailan agertzen diren adierazleak bertan agertzen direnak dira; hasierako eta maila aurreraturako proposatzen diren ñabardurak, ordea, adierazle horiei gehituz ematen den lorpenaren mailakatzeko-proposamena. 1go kompetentzian esaldi osoak jartzen dira adibide gisa (proposamen besterik ez dira), hurrengoetan adierazleak formulatzeko erantsi daitezkeen hitz betegarriak besterik ez.

Kasu honetan, bizitako egoerarekin, sentimenduen eta emozioen adierazpenarekin, motibazioarekin eta eskola-lanean aritzearekin lotutako adierazleak baino ez dira agertzen.

<b>HITZEZ, HITZIK GABE ETA MODU DIGITALEAN KOMUNIKATZEKO KOMPETENTZIA.</b> Hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioa eta komunikazio digitala modu osagarrian erabiltzea da, ganoraz eta egoki komunikatu ahal izateko egoera pertsonal, sozial eta akademikoetan.		
HASIERAKO MAILA	ERDI MAILA	MAILA AURRERATUA
<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Gailu digitalak erabiltzeko zailtasunak izan ditu.</li> <li>2. Pantaila aurrean pasa duen denbora handiegia izan da</li> <li>3. Bizi izan dugun egoerari buruzko iritzia eta pentsamenduak adierazteko laguntza behar izan du.</li> <li>4. Egoera sanitarioaren aurrean ideiak, emozioak eta sentimenduak modu ezberdinez adierazteko zailtasunak izan ditu.</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Gailu digitalak erabiltzeko trebea izan da</li> <li>2. Pantaila aurrean pasa duen denbora orekatua izan da</li> <li>3. Bizi izan dugun egoerari buruzko iritzia eta pentsamenduak adierazteko gai izan da.</li> <li>4. Egoera sanitarioaren aurrean ideiak, emozioak eta sentimenduak modu ezberdinez adierazteko gai izan da.</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Gailu digitalak erabili ditu trebetasun handiz eta eraginkortasunez.</li> <li>2. Pantaila aurrean pasa duen denbora oso egokia izan da</li> <li>3. Bizi izan dugun egoerari buruzko iritzia eta pentsamenduak modu egokian adierazi ditu</li> <li>4. Egoera sanitarioaren aurrean ideiak, emozioak eta sentimenduak modu ezberdinez, arduraz eta testuingurura egokituz adierazteko gai izan da</li> </ol>

**IKASTEN ETA PENTSATZEN IKASTEKO KONPETENTZIA.** Ikasteko eta lan egiteko ohiturak, ikasteko estrategiak eta pentsamendu zorrotza izatea da, eta ikasitakoa mobilizatzea eta beste testuinguru eta egoera batzuetara eramatea, norberaren ikaskuntza autonomiaz antolatzeko.

HASIERAKO MAILA	ERDI MAILA	MAILA AURRERATUA
<ul style="list-style-type: none"> <li>● Lagunduta...</li> <li>● Zailtasunak dauzka...</li> <li>● Saiatzen da...</li> <li>● Kostatzen zaio...</li> <li>● Behin edo behin...</li> <li>● Bideratuta...</li> <li>● Konturatzen da...</li> <li>● Beste norbaiten gidaritzapean...</li> <li>● Ezagutzen du...</li> <li>● Laguntza behar du...</li> <li>● Ez daki...</li> <li>● Nekez...</li> <li>● Noizean behin...</li> <li>● ...</li> </ul>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Ikasteko baldintza onak izateko edo bilatzeko gai zain da (tokia lasaia, konexioa, gailua, ...)</li> <li>2. Lanak entregatzeko epeak errespetatzeko gai izan da</li> <li>3. Informazioa ulertzen saiatu du (azaltzen zaiona, irakurtzen duena, ...)</li> <li>4. Zailtzak argitzeko gai zian da ( bideak garbi zituen)</li> <li>5. Ikaskuntzarekin aurrera egiteko gai zain da (arrera positiboa izan du)</li> </ol>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Arduraz...</li> <li>● Oso ongi...</li> <li>● Modu egokian</li> <li>● Heldutasunez...</li> <li>● Ulertzen eta interpretatzen...</li> <li>● Zailtasunen aurrean aurrera egiten du...</li> <li>● Proposamenak egiten ditu...</li> <li>● Interesa adierazten du...</li> <li>● Testuingurura egokituz...</li> <li>● ...</li> </ul>

**ELKARBIZITZARAKO KONPETENTZIA.** Pertsonen arteko, taldeko eta komunitateko egoeretan elkarrekikotasunez parte hartzea da, gainerako pertsoneri aitortuz norberari aitortutako eskubideak eta betebeharrak eta, horrela, ekarpen bat egitea norberaren eta guztion ongirako.

HASIERAKO MAILA	ERDI MAILA	MAILA AURRERATUA
<ul style="list-style-type: none"> <li>● Lagunduta...</li> <li>● Zailtasunak dauzka...</li> <li>● Saiatzen da...</li> <li>● Kostatzen zaio...</li> <li>● Behin edo behin...</li> <li>● Bideratuta...</li> <li>● Konturatzen da...</li> <li>● Beste norbaiten gidaritzapean...</li> <li>● Ezagutzen du...</li> <li>● Laguntza behar du...</li> <li>● Ez daki...</li> <li>● Nekez...</li> <li>● Noizean behin...</li> <li>● ...</li> </ul>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Arauak errespetatzeko gai da.</li> <li>2. Lagunekin harremanak izateko gai izan da.</li> <li>3. Etxean besteen espazioak eta beharrak errespetatzeko gaitasuna izan du.</li> <li>4. Etxeko lanetan kolaboratzeko prest agertu da</li> <li>5. Gatazka egoeretan estrategiak erakusten ditu</li> </ol>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Arduraz...</li> <li>● Oso ongi...</li> <li>● Modu egokian</li> <li>● Heldutasunez...</li> <li>● Ulertzen eta interpretatzen...</li> <li>● Zailtasunen aurrean aurrera egiten du...</li> <li>● Proposamenak egiten ditu...</li> <li>● Interesa adierazten du...</li> <li>● Testuingurura egokituz...</li> <li>● ...</li> </ul>

**EKIMENERAKO ETA EKITEKO ESPIRITURAKO KONPETENTZIA.** Ekimena izatea eta ekite-prozesua erabakitasunez eta eraginkortasunez kudeatzea da testuinguru eta egoera pertsonal, sozial, akademiko eta lanekoetan, ideiak ekintza bihurtzeko.

HASIERAKO MAILA	ERDI MAILA	MAILA AURRERATUA
<ul style="list-style-type: none"> <li>● Lagunduta...</li> <li>● Zailtasunak dauzka...</li> <li>● Saiatzen da...</li> <li>● Kostatzen zaio...</li> <li>● Behin edo behin...</li> <li>● Bideratuta...</li> <li>● Konturatzen da...</li> <li>● Beste norbaiten gidaritzapean...</li> <li>● Ezagutzen du...</li> <li>● Laguntza behar du...</li> <li>● Ez daki...</li> <li>● Nekez...</li> <li>● Noizean behin...</li> <li>● ...</li> </ul>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Lan bat garatzerakoan, zailtasunak identifikatzeko gai da.</li> <li>2. Jarduera berriak egiteko gai izan da (sukaldata, dantza, artelanak, ...)</li> <li>3. Bere proiektuen emaitzak baloratzeko gai da.</li> <li>4. Errutina berriak egiteko eta ikasteko gai izan da</li> </ol>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Arduraz...</li> <li>● Oso ongi...</li> <li>● Modu egokian</li> <li>● Heldutasunez...</li> <li>● Ulertzen eta interpretatzen...</li> <li>● Zailtasunen aurrean aurrera egiten du...</li> <li>● Proposamenak egiten ditu...</li> <li>● Interesa adierazten du...</li> <li>● Testuingurura egokituz...</li> <li>● ...</li> </ul>

**NORBERA IZATEN IKASTEKO KONPETENTZIA.** Norberari bizitzako esparru eta egoera guztietan sortzen zaizkion sentimenduez, pentsamenduez eta ekintzez gogoeta egitea da, haiei buruz egiten den balorazioaren arabera sendotu eta egokitzea horiek guztiak, eta, era horretan, etengabeko hobekuntzaren bidez, norbera autorrealizaziora bideratzea, errealizazio horren dimentsio guztietan.

HASIERAKO MAILA	ERDI MAILA	MAILA AURRERATUA
<ul style="list-style-type: none"> <li>● Lagunduta...</li> <li>● Zailtasunak dauzka...</li> <li>● Saiatzen da...</li> <li>● Kostatzen zaio...</li> <li>● Behin edo behin...</li> <li>● Bideratuta...</li> <li>● Konturatzen da...</li> <li>● Beste norbaiten gidaritzapean...</li> <li>● Ezagutzen du...</li> <li>● Laguntza behar du...</li> <li>● Ez daki...</li> <li>● Nekez...</li> <li>● Noizean behin...</li> <li>● ...</li> </ul>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Bere buruan konfiantza sentitzeko gai da.</li> <li>2. Zailtasun berriak aurkitzeko gaitasuna izan du</li> <li>3. Malgutasunez egokitu da egoera berrietara</li> <li>4. Jarrera irekia agertzen du testu inguru berri honetan.</li> <li>5. Ikuspuntuak eta sentimenduak erraz partekatzen zituen</li> </ol>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Arduraz...</li> <li>● Oso ongi...</li> <li>● Modu egokian</li> <li>● Heldutasunez...</li> <li>● Ulertzen eta interpretatzen...</li> <li>● Zailtasunen aurrean aurrera egiten du...</li> <li>● Proposamenak egiten ditu...</li> <li>● Interesa adierazten du...</li> <li>● Testuingurura egokituz...</li> <li>● ...</li> </ul>

<b>2019-20 IKASTURTEA</b>	<b>IKASTURTE AMAIERAKO TXOSTENA – HEZKUNTZA-ERREFORTZURAKO PROPOSAMENA</b> MODELO DE INFORME DE FINAL DE CURSO - PROPUESTA PARA REFUERZO EDUCATIVO <b>LEHEN HEZKUNTZA / EDUCACIÓN PRIMARIA</b>
-------------------------------	--

<b>IKASLEAREN DATUAK</b>	<b>LEHEN ABIZENA / PRIMER APELLIDO</b>	<b>BIGARREN ABIZENA / SEGUNDO APELLIDO</b>	<b>IZENA / NOMBRE</b>
	<b>JAIOTEGUNA / FECHA DE NACIMIENTO</b>	<b>TUTOREA / TUTOR-A</b>	<b>TALDEA / GRUPO</b>
<b>DATOS DEL ALUMNO/A</b>	<b>HEZKUNTZA-ERREFORTZUA BEHAR DUEN EGOERA BEREZIA / SITUACIÓN ESPECÍFICA QUE REQUIERE REFUERZO</b>		
	<b>Ikasturte berean beste urtebete ari den ikaslea</b> Alumno-a que permanece un año más en el curso		
	<b>Gairen batean maila nahikoa lortu ez duen ikaslea</b> Alumno-a que no ha alcanzado el nivel suficiente en alguna de las materias		
	<b>Hezkuntza-laguntzaren berariazko premiak dituen ikaslea</b> Alumno-a con necesidades específicas de apoyo educativo		
	<b>Konfinamendu egoerak sortutako beharrak</b> Necesidades derivadas de la situación de confinamiento		

**1. IKASKETEN HISTORIALAREN LABURPENA / SÍNTESIS DEL HISTORIAL EDUCATIVO**

**Aurretiazko informazio esanguratsuaz gain, derrigorrezko konfinamendu egoerak sortutako beharrak ere aipatuko dira**  
Además de la información previa relevante, se recogerán las necesidades surgidas a raíz del confinamiento obligatorio.

--	--

**2. IKASLEARENTZAT, IKASTEKO ERRAZTASUN EDO ZAILTASUN DIREN GORABEHERA ESANGURATSUAK:**

ASPECTOS RELEVANTES QUE DIFICULTAN O FAVORECEN EL APRENDIZAJE DEL ALUMNO/A

	<b>oztopatzen du</b> <i>dificulta</i>			<b>laguntzen du</b> <i>favorece</i>		
	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>	<b>5</b>	<b>6</b>
<b>Ikaskuntza telematikorako aukera /</b> Posibilidad de aprendizaje telemático						
<b>Ikasteko denbora eta planifikazioa /</b> Planificación del estudio						
<b>Errutinen ikasketa/</b> Adquisición de rutinas						
<b>Zalantzak argitzeko bideak /</b> Capacidad para aclarar dudas						
<b>Autonomia-maila/</b> Grado de autonomía						

	oztopatzen du dificulta			laguntzen du favorece		
	1	2	3	4	5	6
<b>Erantzukizuna eta autoexijentzia/</b> Responsabilidad y autoexigencia						
<b>Emozioen eta sentimenduen kedeaketa/</b> Gestión de emociones y sentimientos						
<b>Ikaskideekiko harremana /</b> Relación con los compañeros –as						
<b>Helduekiko harremana/</b> Relación con personas adultas						
<b>Ikasteko motibazioa/</b> Motivación para aprender						
<b>Familiaren eta ikastetxearen arteko lankidetzta/</b> Colaboración familia-centro						

### 3. KONPETENTZIEN ESKURATZE MAILA /NIVEL DE COMPETENCIA CURRICULAR

Konpetentziak /Competencias	1*	2	3
<b>1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia</b> Competencia para la comunicación verbal, no verbal y digital			
<b>2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia</b> Competencia para aprender a aprender y para pensar			
<b>3. Elkarbizitzarako konpetentzia</b> Competencia para convivir			
<b>4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia</b> Competencia para la iniciativa y el espíritu emprendedor			
<b>5. Izaten ikasteko konpetentzia</b> Competencia para aprender a ser			
<b>6. Konpetentzia komunikazio linguistikoan eta literaturan</b> Competencia en comunicación lingüística y literaria			
<b>7. Konpetentzia matematikoa</b> Competencia matemática			
<b>8. Konpetentzia zientifikoa</b> Competencia científica			
<b>9. Konpetentzia teknologikoa</b> Competencia tecnológica			
<b>10. Gizabidezko eta gizarte konpetentzia</b> Competencia social y cívica			
<b>11. Konpetentzia artistikoa</b> Competencia artística			
<b>12. Konpetentzia eragilea</b> Competencia motriz			

1-Hasierakoa: eskuratze mailan dagoen konpetentzia; 2-Ertaina: eskuratutako konpetentzia; 3-Aurreratua: sobera eskuratutakoa

1- Nivel inicial: competencia a desarrollar; 2- Medio: competencia conseguida; 3- Avanzado: alto desempeño

#### 4. HEZKUNTZA-ERREFORTZUAREN BEHARRAK / NECESIDAD DE REFUERZO EDUCATIVO

**Atal honetako informazioa datorren ikasturteko irakasle-taldeak hezkuntza indartzeko banakako plana egiteko**

**abiapuntua izango da /** La información de este apartado será el punto de partida para el equipo docente del próximo curso elabore el Plan personalizado de refuerzo educativo.

##### FAMILIA-ARLOA / ÁMBITO FAMILIAR

##### ZEHAR-KONPETENTZIAK/ COMPETENCIAS TRANSVERSALES

**Hasierako mailan dauden zehar-konpetentziak zehaztuko dira/** Se especificarán las competencias transversales de **nivel inicial**

##### Zehar-konpetentzia/ Competencia transversal:

**Hasierako mailan(1) edo aurreratuan(3) dauden zehar-konpetentziak zehaztuko dira.** Besteetan (2), lortu ez diren adierazleak zehaztea ere komeni da

Se especificarán las competencias transversales de **nivel inicial (1) o avanzado (3)**. En las demás (2) conviene recoger los indicadores no conseguidos.

##### DIZIPLINA BARRUKO KONPETENTZIAK / COMPETENCIAS DISCIPLINARES

**Hasierako mailan dauden diziplina baitako konpetentziekin lotutako irakasgaiak zehaztuko dira /** Se especificarán **las materias** relacionadas con las competencias disciplinares de **nivel inicial**.

##### IRAKASGAIA / ASIGNATURA:

**Hasierako mailan (1) edo aurreratuan (3) dauden diziplina baitako konpetentziekin lotutako irakasgaiak zehaztuko dira** Se especificarán las materias relacionadas con las competencias disciplinares de **nivel inicial(1) o avanzado (3)**

**Udarako lanak/** Trabajo para el verano

#### 4. GOMENDIOAK IKASLEAREKIN LAN EGITEKO / RECOMENDACIONES PARA EL TRABAJO CON EL ALUMNO-A

Datorren ikasturtean ikaslearekin lan egiteko gomendioak: zein alderditan jarri behar dugun arreta, zeintzuk diren ikaslearengana hurbiltzeko estrategia arrakastatsuenak, zein jarduerari erantzuten dien ondoen, zer kostatzen zaion gehien... / Recomendaciones para el trabajo con el alumno o alumna durante el curso siguiente: aspectos a los que debemos prestar atención, estrategias de acercamiento al alumno-a más exitosas, metodologías o actividades a las que responde mejor o que le cuesta más...

Data:

Tutorea / Irakaslea(k)

## 6. Eranskina

Adituen azalpenetatik ondoriozta daiteke gehien antzeman ahal izan diren egoerak honako alderdi hauekin lotutakoak izan direla:

- Gatazkak pertsonen arteko harremanetan.
- Haserreak eta tristura, bizitako egoeren eta ziurgabetasunaren aurrean.
- Erresilientzia falta
- Zailtasunak errutina berrien aurrean.
- Motibaziorik eza.
- Autoestimurik eza.
- ...

Balitzko egoera horien eta katalogatu ezin ditugun beste askoren aurrean, guztiak blokeo emozionalak eragindakoak, zenbait jarduera proposatzen dira "Hezkuntza emozionala" lantzeko.

Kontuan izan, proposatutako jarduerak katalogo bat baino ez direla, eta irakasleek aukeratu beharko dutela zer egin edo eskaini ikasleari edo familiari, hautemandako egoeraren arabera.

<b>LEHEN HEZKUNTZAKO LEHENGO ZIKLOA<sup>1</sup></b>		
<b>Jardueren tipologia</b>	<b>Helburua</b>	<b>Jarduerak</b>
<b>Emozioen erregulaziorako lantzeko jarduerak</b>	Emozioak era egokian bideratzea, gure emozioak onartzea eta hauei erantzun egokiena ematea.	<ul style="list-style-type: none"><li>• Semaforoa</li></ul>
<b>Autonomia emozionala lortzeko jarduerak</b>	Autoestimua indartzea, mezu negatiboei aurre egitea, pentsamendu ezkorrak baikor bihurtzeko gaitasuna izatea	<ul style="list-style-type: none"><li>• Pentsamendu baikorra</li><li>• Kartak</li></ul>
<b>Lanerako ohiturak eta motibazioa lantzeko jarduerak</b>	Egoera baten aurrean jokaera ezberdinak daudela jakitea, lanaren bitartez helburuak lor daitezkeela ikastea.	<ul style="list-style-type: none"><li>• Igelen ipuina</li></ul>

<sup>1</sup> Garmendia Iturrioz, I. Hezkuntza Emozionala. Lehen hezkuntza. 1go zikloa. Gipuzkoako Foru Aldundia. Gráficas Zubi.2008.



<b>LEHEN HEZKUNTZAKO BIGARREN ZIKLOA<sup>2</sup></b>		
<b>Jardueren tipologia</b>	<b>Helburua</b>	<b>Jarduerak</b>
<b>Emozioen erregulaziorako lantzeko jarduerak</b>	Kalte egiten diguten eta on egiten diguten emozioak ezagutzea, eta emozioen alderdi baikorrak eta ezkorrak aztertzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Borobilak</li> <li>• Haserrea bideratzen dut</li> </ul>
<b>Autonomia emozionala lortzeko jarduerak</b>	Ikuspuntu baikorra lantzea, ongi sentiarazten gaituzten gauzen kontzientzia hartzea, eta pozik bizitzen ikastea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Puzzlea</li> <li>• Egun ideala</li> </ul>
<b>Lanerako ohiturak eta motibazioa lantzeko jarduerak</b>	Barne errekonpentsaren garrantziaz jabetzea, eta lanaren garrantziari buruzko gogoeta bultzatzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gurasoei galdeketa</li> <li>• Ondo pasa dezakegu</li> </ul>

<b>LEHEN HEZKUNTZAKO HIRUGARREN ZIKLOA<sup>3</sup></b>		
<b>Jardueren tipologia</b>	<b>Helburua (k)</b>	<b>Jarduerak</b>
<b>Emozioen erregulaziorako lantzeko jarduerak</b>	<p>Gure emozioak ulertu eta erregulatzeko gai izatea, egoera kaltegarrien aurrean jarrera positiboa garatzea</p> <p>Emozioak sortzen dituzten egoerak antzematea, gure emozioen pertzepzio egokia garatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Emozio berak lagundu edo kalte egin diezaguke.</li> <li>• Nire emozioak kontrolatu nahi ditut.</li> <li>• Kezka kontrolatzen dut.</li> <li>• Haserrea kontrolatzen dut.</li> </ul>
<b>Autonomia emozionala lortzeko jarduerak</b>	Pentsamendu ezkorrek baikor bihurtzeko ohitura lantzea, komunikazio negatiboak geldiarazten ikastea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zorionez.</li> <li>• Pentsamendu ezkorrek zakarrontzira!!</li> </ul>

<sup>2</sup> Vitoria Troncoso, S. eta Etxeberria Zubeldia, T. Hezkuntza Emozionala. Lehen hezkuntza. 2. zikloa. Gipuzkoako Foru Aldundia. Gráficas Zubi.2008.

<sup>3</sup> Altuna Ganboa, J. M. eta Arretxe Dorronsoro, I. Hezkuntza Emozionala. Lehen hezkuntza. 3. zikloa. Gipuzkoako Foru Aldundia. Gráficas Zubi.2008.

<p><b>Lanerako ohiturak eta motibazioa lantzeko jarduerak</b></p>	<p>Egoera baten aurrean jokaera ezberdinak daudela jakitea, lanaren bitartez helburuak lor daitezkeela ikastea</p> <p>Norberak bere lehentasunak identifikatzea, bere denboraren erabileraz jabetzea eta denbora era eraginkorrean erabiltzeko gaitasuna izatea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Goazen lanera</li> <li>● Lankide ona izateko moduak</li> <li>● Nire denbora aztertzen dut</li> </ul>
---	--	---